

Atentatua Gasteizen

PSE-EE-KO BURUZAGIA OINEZ ATERA ZEN ETXETIK BAZKALOSTEAN, ETA HANDIK BERREHUN METRORA HIL ZUTEN

Buesa eta haren bizkartzaina hil ditu ETAk Gasteizen, bonba-auto bat jarrita

■ Arratsaldeko laurak eta berrogei minututan egin zuen eztanda bonba-autoak, Agirre Miramon kalean

■ Jorge Diez Elorza gasteiztarra XIII. promozioako ertzaina zen, eta bizkartzaina pasa den urriaz geroztik.

■ Buesak arratsaldero oinez egiten zuen etxetik egoitzarainoko bidea eta ez zuen segurtasun neurri berezirik hartzen.

Erredakzioa / Gasteiz

ARRATSALDEKO laurak eta berrogei minututan hil zituzten Fernando Buesa PSE-EEko Arabako idazkari nagusia eta Jorge Diez Elorza, haren bizkartzaina.

Etxetik alderdiko egoitzaraino oinez egiten zuen ibilaldia, egunero, eta ez zuen segurtasun neurri berezirik hartzeko ohiturarik, Buesa ezagutzen zutenek jakinarazi zuten.

Ustez ETak bonba-autoa jarri zuen Nieves Cano eta Agirre Miramon kaleko bidegurutzean, eta Buesa ondotik pasa zenean eztandarazi zuen. Ertzaintzako iturriek adierazi dutenez, berrehun bat metrora izango ziren autoa eztandarazi zutenak.


Zartakoa Gasteizko erdigunean ere entzun zen. Lehendakartzatik ere bai. Handik gertu dago, eta Josu Jon Imaz bozeramailea astearteko prentsaurrekoa ematen ari zen. Bertan behera geratu zen Imazen hitzaldia, eta kazetariak atentatuaren lekura abiatu ziren.

Iritsi zirenean autoak erretzen ikusi zuten. Buesaren gorpua errepidearen erdian zegoen, eta bizkartzainarena-27 urteko gasteiztarra, XIII. promozioako ertzaina eta Erne sindikatuan afiliatuta handik berrogeita hamar bat metrora. Ertzaintzak berehala moztu zuen errepidea.

Duela urtebete lapurtu zuten autoa

Unibertsitateak dauden lekuan izan zen atentatua. Auto-bomba jarri zuten lekutik gertu -berrogei metrora- bi institutu daude. Klasea ematen ari ziren zartakoa izen zenan. Federico Barai-bar eta Ramiro de Maeztu institutuak kristalak hautsi ziren. Ikasleek gelak utzi zituzten berehala.

Injeneritza eskolati k gertu



MIREN SAEZ

Fernando Buesaren gorpua, atentatua gertatu zen lekuan.



J. Arzak



DAVID AGUILAR / EFE

Ertzainak atentatua gertatu lekua arakatzen.

dago, halaber, atentatuaren lekua. Goizean biolentziaren aurkako mobilizazioa egin zuten, Unibertsitateko zuzendariak mehatxuak izan dituelako. Parean presoen aldeko ohiuak eginez ehun

bat ikasle izan bildu ziren.

Atentatua egiteko autoa duela urtebete inguru lapurtu zuten, Ertzaintzako iturriek jakinarazi dutenez. Ikerketako iturriek adierazi dutenez, ETA-ren su-etena

indarrean zegoela lapurtu zuten Renault Express autoa. Aipatu iturriek jakinarazi dute kolore zuriko autoa zela.

Autoaren barruan 20 kilo lehergai jarri zuten atenta-

tuaren egileek. Radiomandoarekin baliatu ziren atentatua egiteko. Herrizaingo Sailak jakinarazi du ETak Madrilan egin zuen azken atentatuarekin parekotasun handia duela atzo Gasteizen